ENARGIA

# NOLA HARPIDETU

Enargiaren %100ean berriztagarria den argindar eskaintzari ?

## 1 Behar diren elementuak

Gure argindar eskaintzari harpidetzeko webgunean den formularioa bete behar da. Errezki betetzeko, elementu hauek beharko dituzu :

- **argindar faktura bat**, hortan hornidura pundua (PDL-Point de Livraison), zure kontagailuaren indarra kVA-n emana et zure opzioa option Base edo Heures Pleines Heures Creuses beharko dituzu
- zure banku nortasun ageria **RIB**
- egungo **kontagailuaren erreleboa**
- zure fakturaren zati bat euskoz ordaindu nahiez gero, ordaintze sistema hori posible izanen delarik orduan zure eusko kontuaren datuak beharko dituzu, azken hauek zure Eusko gunean atsemanen dituzu.

## 2 Gure webgunera joan

Orain gure webgunera konektatzeko unea etorri da www.enargia.eus. Han behar duzun kontratua aukeratzen ahalko duzu izan partikular edo profezional gure formularioa betez.

## 3 Abiatzen gira!

Gure formularioaren aitzinean zira, orain ondorengo urrats ezberdinak segi itzazu. Galderak baldin badituzu ez duda deitu 05.54.81.00.82 zenbakira.

## 1 etapa - zure herria izendatu

Gure eskaintzari harpidetzeko zure herria Euskal Hirigunea osatzen duen herri bat izan behar da.




## 2 etapa - zure datuak izendatu

3.etapan kontratuaren bigarren titular bat izendatzen ahalko duzu.



# 3 etapa - zure helbidea eta kontagailuaren datu teknikoak izendatu

Fakturazioarentzat beste helbide bat nahi duzu? Hemen bigarren hori izendatzen ahal duzu.
Profezional bat bazira, gaur duzun kontratuaren ezeztatze kondizioak ere galdetuko dizkizugu.



## 4 etapa - zure eskaintza hautatu eta zure banku datuak eman

Hornitzaile aldaketa desmartxa segidan hastea nahi baduzu orduan zure erretraktazio epeaz aprobetxatu nahi ez duzula erran behar duzu. Hortarako, laukitxoan klik egin beharko duzu. Bestenaz, 14 egun itxoin beharko ditugu zure eskaera tratatzeko.



## 5 etapa - harpide izateaz gain, bazkide izan zaitez!

Enargiaren bazkide izatea ez da beharrezkoa Enargiaren eskaintzari lotzeko baina garrantzitsua iduritzen zaigu. Hain zuzen ere, bazkide izanez gero gure kooperatibaren erabaki garrantzitsuak hartzen direlarik zure boza entzunarazten ahalko duzu. Horrezgain gure lurraldearen eraldaketa ekologikoaren aktore bat izanen zira.



## 6 etapa - zure harpidetza eskaera onartua da!

Formularioa bete eta e-mail automatiko bat errezibituko duzu. Informazio gehiago behar baditugu zurekin harremanetan sartuko gira zuzenean. Ondoren, egun batzu pasa eta bigarren e-mail bat lortuko duzu zure kontratua efektiboa dela konfirmatzeko. Hortan zure kontratua zein egunetan hasi den errana izanen zaizu.

